

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO  
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA  
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA  
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

## Lehenbiziko aldiz, Nafarroako Foruzaingo eta Udaltzaingoaren 81 agentek Arkauteko Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademian prestakuntza osatuko dute

*Ekintza hau duela bi urte María José Beaumontek Nafarroako Gobernuaren Lehendakaritza, Funtzio Publiko, Herrizaingo eta Justizia Saileko kontseilariak eta Estefanía Beltrán de Herediak Eusko Jaurlaritzako Segurtasun sailburuak sinatu zuten lankidetzarako protokoloaren barruan sartzen da.*

Astelehena, 2018.eko urriak 15

María José Beaumontek Nafarroako Gobernuaren Lehendakaritza, Funtzio Publiko, Herrizaingo eta Justizia Saileko kontseilariak eta Estefanía Beltrán de Herediak Eusko Jaurlaritzako Segurtasun sailburuak lehenbiziko aldiz Arkauteko Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademian prestakuntza osatuko duten Nafarroako Udaltzaingorako eta Foruzaingorako lehenengo 40 hautagaiei ongi-etorria egin die, gaur, Ertzaintzak Berrozin duen egoitzan. Segurtasun publikoaren arloan prestakuntza osatzeko ikastaro honek Nafarroako Segurtasun eta Larrialdi Eskolak eta Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiak 2016ko uztailan sinatu zuten lankidetzarako protokoloan du oinarria.

Foruzaingoan edo Barañain, Lizarra, Erriberri, Iruñea, Azkoién, Tafalla, Tuterá, eta Atarrabia herrietako Udaltzaingoan sartu nahi duten 81 hautagaiek Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademian lehenbiziko aldiz ikastaro bat emango dute, dagokien polizia-taldean sartzeko prestakuntzaren barruan. Orain arte, prestakuntza osagarri hori Ávilako Polizia Akademian egiten zuten, oraingoan, ordea, lankidetzarako protokoloari esker, Arkauten egin ahal izango dute.

Lehenengo 40 agenteak Berroziko instalazioetan gaua igaro eta Arkauteko Akademiara joango dira 29 orduko prestakuntza jasotzeko. Aste honetan zehar emango diren edukien artean garrantzitsuenak dira hauek: ondarearen kontrako delitu zehatzen modus operandia, aseguramendua eta aurretiazko ikerkuntza, barnealdeetan eta



Beaumont eta Heredia kontseilariak argazkiaren erdian, gainontzeko agintariekin batera.

kanpoaldeetan aurrera egiteko teknikak eta taktikak (etxe eta genero indarkeriazko egoerak barne), tiraketa-teknikak, negoziatzaileen esku-hartzea eta nazioarteko terrorismoa, islamismo erradikala bereziki.

Prestakuntza amaitzerakoan, etorkizuneko beste 41 polizia nafarrek prestakuntza-ikastaro berdina jasoko dute astebete beranduago, Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademian bertan.

Prestakuntza-ekintza hori Nafarroako Segurtasun eta Larrialdi Eskolaren eta Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiaren arteko lankidetzarako protokoloaren barruan dago, duela bi urte kontseilariak sinatutakoa, beste batzuen artean, bi prestakuntza-zentroek ikasketa-planak eta ikastaroetako programak diseinatzen laguntzeko, eta prestakuntza-jardueren urteko planaren inguruan elkarri informazioa emateko, bi erakundeek beren zereginetan eraginkortasun handiagoa eta giza baliabide eta baliabide tekniko eta material gehiago eskura ditzaten.

Maria José Nafarroako Gobernuaren Lehendakaritza, Funtzio Publiko, Herrizaingo eta Justizia Saileko kontseilaria eta Estefanía Beltrán de Herediak Eusko Jaurlaritzako Segurtasun sailburua Berrozin egon dira, eta Ertzaintzaren egoitza bisitatu eta gero, bi kontseilariak bilera egin dute duela bi urte segurtasun-arloan sinatutako lankidetzaprotokei jarraipena egiteko.

Beaumont kontseilariarekin batera egon dira Agustín Gastaminza jauna Herrizaingoko zuzendari nagusia, Torcuato Muñoz jauna ForuzaingokoPolizia burua, eta Izaskun Cibiriáin Nafarroako Segurtasun eta Larrialdi Eskolako zuzendaria. Bestalde, Beltrán de Heredia sailburua bilerara joan da Josu Zubiaga Segurtasuneko sailburuordearekin, Gervasio Gabirondo Ertzaintzako zuzendariarekin, Jorge Aldekoa Ertzaintzako buruarekin, eta Malentxo Arruabarrena Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiaren zuzendariarekin.